



ESKOLA KIROLAREN LURRALDE KONTSEILUAREN BILERAREN AKTA

2015eko otsailaren 25eko 18:00etan, Kirol Etxeko Juan Muguerza aretoan, Eskola Kirolaren Lurralde Kontseiluaren ohiko bilera izan da. Deialdiaren gai-zerrenda osatzen duten gaiak jorratu dituzte bertan.

Bertaratuak honakoak izan dira:

- * Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik
 - Asier Sarriegi Zumarraga, Kirol zuzendari nagusia, bileran buru izan dena.
 - Aitor Arozena, Kiroleko zerbitzburua.
 - Imanol Fernández de Larrinoa, Kirol Zerbitzuko teknikaria.

- * Gipuzkoako udalen aldetik
 - Arkaitz Angiozar, Lezoko Udalekoa.
 - Manolo Aierbe, Hernaniko Udalekoa.
 - Aitziber Murua, Villabonako Udalekoa.

- * Kirol federazioen aldetik
 - Borja Reina, Mendi Federaziokoa.
 - Miguel Ángel Martín, Judo Federaziokoa.
 - Alicia Figueroa eta Eneritz Maiora, Kirol Egokituaren Federaziokoak.

- * Ikastetxeen aldetik
 - Oinatz Agirre, Arrasateko Herri Eskolakoa.
 - Pako Urrestarazu, Ataungo Joxe Miel Barandiaran-ekoa.
 - Aitor Perez, Orereta Ikastolakoa.
 - Xabier Ezeiza, Udarregi Ikastolaren ordezkari gisa.

Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzako pertsona hauek izan dira:

- Iñaki Elizegi.
- Miren Arbelaiz.
- Sergio Gonzalez.

- *Banatutako dokumentazioa*

. *2014ko ekainaren 18ko bileraren akta.*

. *Gipuzkoako Foru Aldundiak azken lau urtean eskola kirolera bideratutako aurrekontuaren bilakaerari buruzko laburpen-agiria.*

- *2015eko otsailaren 26an posta elektroniko bidez bidalitako dokumentazioa.*

. *Euskadiko kiroleko lanbideetara sartzeko eta horietan aritzeko legeri buruzko aurreproiektua.*

. *Gipuzkoako Foru Aldundiak lege proiektu aipatuari jarritako alegazioak.*

. *Gipuzkoako Foru Aldundiak baimendutako kirol hastapenerako unitateak eskola kiroleko programan sartutako kirol modalitate bereko jardueretikiko osagarriak izatea aztertzen duen txostena.*



1) 2014ko ekainaren 18ko bilkurako akta irakurtzea eta onartzea

Onartu egin da.

Arkaitz Angiozarrek aipatu du aktan jaso egiten dela kirol barrutietarako portaera jarraibide batzuk ezartzeko bere proposamena, zehazki praktika egokiei buruzko eskuliburu baten gisakoa-edo dena.

Lan hori egiteko dagoenez, lantalde bat sortzea komeni dela planteatu da, eta ildo honetatik Gipuzkoako hainbat herri eta eskualdetan landu diren esperientziak ere aprobetxatu behar direla.

Imanol Fernandez de Larrinoa eta Arkaitz Angiozar arduratuko dira lantaldea martxan jartzeaz.

2) 2014/2015 ikasturteko eskola kiroleko jarduera programa abian jartzeko uneko gorabeherak

- Partaidetzari dagokionez, Imanol Fernández de Larrinoak azaldu du partaide kopurua, bai eskolaumeena bai taldeena, aurreko ikasturtekoaren antzekoa dela, eta egonkor ari dela mantentzen azken urteotan.

- Antolaketa mailako berrikuntza gisa, aipatu egin ditu Donostian kimu mailako eskolaumeentzako 8ko futboleko lehiaketan antolaketan sartu diren aldaketak.

Azaldu du 2012-2013ko ikasturtearen amaiera aldean Arartekoaren gomendio bat jaso zutela, Kontxako hondartzako 8ko futbol txapelketan neskek ez parte hartzeari zegokionez; horretan, eskatzen zuen desberdintasun egoera hori amaitzea, diskriminaziotzat jotzen baitzuen emakumezko eskolaumeentzat.

Horrenbestez, 2013-2014 ikasturtean zehar batzorde bat sortu zen, horretan partaide zirela gaiak eragiten ziren ikastetxeen ordezkariak, Donostia Kirolak-enak, Gipuzkoako Futbol Federazioarenak eta Gipuzkoako Foru Aldundiarenak berarenak.

Egoera aztertzean, ikusi zen ezingo zela hondartzako lehiaketaren egungo sistema mantendu, zeren eta Kontxako hondartzaren egoerak ez baitzuen aukerarik ematen Donostian 8ko futbolean ari diren mutil eta neska talde guztiak hartzeko.

Gauzak horrela, hondartzako jardunaldiak belar artifizialezko zelaietan jokatzeko jardunaldiekin txandakatzea planteatu zen. Horrela, gainera, aukera ematen zen Donostian maila honetan jokatzeko diren hainbat kirol kolektiboren egutegietako jardunaldiak gauzatzeko, hondartzako futbolaren egutegiak eragindako etenik gabe; izan ere azken hauek marea arabera programatzen ziren eta, horregatik, aldizkakotasun erregularrik gabe egiten ziren, txapelketa ikasturte osoan zehar jokatuz eta beste modalitateen egutegiak marea zela-eta hondartzan futbolean jokatzetik ez zegoen larunbatetan programatuz.

Horrela, batzorde horren azken erabakia zen kimu mailako lehen urtera zuzendutako futbol jarduerak 2014ko urritik 2015eko urtarrilera bitartean garatzea, eta maila bereko bigarren



urteko jarduerak 2015eko otsailetik maiatzera bitartean garatzea; eta nesken zein mutilen lehiaketak baldintza beretan izatea.

Lehen aipatutako beste kirol kolektiboen kasuan, egutegiak alderantziz egingo lirateke, hau da, 2014ko urritik 2015eko urtarrilera bitartean kimu mailako bigarren urtekoen kasuan, eta 2015eko otsailetik maiatzera bitartean maila horretako lehen urtekoen kasuan.

2014ko irailaren hasieran, Gipuzkoako Futbol Federazioak adierazi zuen baldintza horietan uko egiten ziola lehiaketari laguntza teknikoa emateari, hondartzako txapelketaren muinari indarra kentzen ziola argudiatuta.

Denbora askorik ez bazen ere, ikastetxeek eta Donostia Kirolak-ek beste antolaketa-egitura bat jarri zuten martxan, eta horretan Donostiako hainbat klub inplikatu dira, bai ikastetxe batzuei lotuak (Axular, Santo Tomas, Luberrí...), bai lehiaketan erabiltzen diren belar artifizialezko zelaiak kudeatzen dituztenak, Donostia Kirolak-ekin batera inolaz ere.

Aipatutako eragile guztien inplikazioari esker, lehiaketak normal ari dira garatzen; are gehiago, aurreko egoerarekiko hainbat aldaketa sartu dira.

- Imanol Fernandez de Larrinoak aipatu du Aldundiaren arduradun politikoei erabaki dutela herritarren partaidetzarako prozesu bat abian jartzea, eskola kirolari dagokionez, adieraziz bide batez bilera honetan direla zerbitziburua, Iñaki Elizegi, eta Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzako bi teknikari, Miren Arbelaiz eta Sergio González zehazki.

Kirol zuzendari Asier Sarriegik azaldu du Gipuzkoako eskola kirolaren programari buruzko gogoeta bat egitea dela kontua, gogoratuz bide batez Aldundiak eskola kirolaren aldeko apustu garbia egiten duela. Prozesu honen bidez denen iritzia jaso nahi dira, eta noski, baita kritika konstruktiboak ere.

Dena den, hasierako adinetan kirol anitz praktikatzearen aldekoa da apustua, argi eta garbi.

Aitor Arozenak adierazi du prozesua hasten ari dela, eta lehen bi bilera egin dituztela Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzako pertsonalak eta Kirol Zuzendaritzakoak. Bileran direnei prozesuari buruz zer iritzi duten galdetu die.

Pako Urrestarazuk aldeko iritzia azaldu du, eta esan du eskola kiroleko garapenaren arazoa dela ikastetxeek arauak betetzen dituztela, eta kirol klubek, berriz, ez.

Aitor Arozenak adierazi du prozesua modeloarentzako bultzada bat izan daitekeela, baina hobekuntza ekar dezaketen ekarpen guztietarako zabalik daudela. Aipatu du egin beharreko lehen pausotako bat eskola kiroleko programa aditzera ematea dela, apenas edo gaizki ezagutzen baita.

Manolo Aierbek adierazi du gurasoek jasotzen duten informazioak, batez ere klubetatik jasotzen dutenak, gatazkak sortzea eragiten duela.

Pako Urrestarazuk esan du guraso batzuei komeni zaiela egoera hori: ikastetxeak esaten badie ezin dela eta klubak baietz, egin egiten dute.

Asier Sarriegik dio ez bakarrik klubetatik, baizik eta ikastetxeetatik ere batzuetan faltsutu egiten dela errealitatea. Adierazi du prozesu hori ondo etor dakigukeela, borrokan ari garen



hainbat kontu argitu ahal izatearren. Esate baterako, kirol eskoletan adina baino lehen hasteak kasuan kasuko klubaren sarrerak igotzea dakar; horrela, haurrak merkantzia gisa tratatzen dira. Uste du ereduari zuzendu behar diren gauzei buruz hitz egiten hasi behar dela.

Aitor Arozenak esan du oso eredu irekia dela, eta kontuan hartu behar dela ereduaren alde dauden eta horren garapenean laguntzen duten agente asko daudela, ez bakarrik kontra daudenak.

Pako Urrestarazuk azaldu du ezen, bere zonan, koordinatzaileak aspertuta daudela jada arazoekin, eta ez dietela gurasoei aurre egin nahi. Badago jendea larunbat goizetan pilota txapelketak jokatzera Nafarroara joaten dena, eta ikastetxera eskolaumeen zerrenda eskatzera doazen klubak alderantziz izan beharrean, benjamin eta kimu mailetan kirol eskolen arteko adiskidetasunezko partidak egutegitik kanpo... Irakasleek ez dute liskarrik nahi, klubak konturatzen dira eta "barra libre" egiten dute. Bere eskualdean ikastetxeak bere kasa aritzea ari dira pentsatzen, ez direlako ez lagunduta ez babestuta sentitzen. Adibidez: Pilota Federazioari eskatu zioten gutun bat bidaltzea klubei, Nafarroara ezin direla joan gogorazteko, eta Federazioak ez du ezer egin. Gauzak nola diren ez dakien jendea ere bada klubetan.

Arkaitz Angiozarrek uste du prozesua ondo eginez gero positiboa izango dela eskola kirolarentzat.

Asier Sarriegik esan du asmoa ondo egitea dela, ez bi bileratara mugatzea besterik gabe. Ez-betetzei dagokienez, adierazi du agian konklusio aterako dela futbol klubei diru laguntzak emateari utzi behar zaiola.

Aitor Arozenak esan du programak, oro har, ongi funtzionatzen duela. Batzuetan bilera hauetan puztu egiten ditugu gauzak.

Pako Urrestarazuk esan du ez dituela gauzak puzten, eta badirela azken 30 urte honetan gauza bera egiten ari diren bizpahiru federazio.

Eneritz Maiorak esan du Zarautzen EKAP (Eskola Kirolaren Aldeko Plataforma) sortu dutela, itota sentitzen direlako eta eskola kirolaren egoerak okerrera egin duelako.

Arkaitz Angiozarrek esan du bere eskualdean (Oarsoaldea) balorazioa positiboa dela eta udalak klubak oso-oso gainean daudela. Uste du Donostian ere egoera ondo dagoela, ohiko arazoekin.

Asier Sarriegik esan du futbol eskolen eta eskola kiroleko programaren garapenaren artean gertatzen direla arazo handienak.

Aitor Arozenak esan du ezen, futbolaren kasuan, irregulartasunek oso eskolaume kopuru handi bati eragiten diotela; beste modalitate batzuetan, aldiz, kopuru txikiak biltzen dituztelarik eragina txikiagoa da.

Asier Sarriegik gogorazi du beste arazo bat dela Aldundia polizia ez izatea; ezin da Gipuzkoako 600-700 klubak kontrolatzen hasi.

Aitor Pérezek adierazi du berek esanez gero nork jokatu duen modu irregularrean, ez dela ezer gertatzen.



Asier Sarriegik gogoratu du edonola ere frogak behar direla, ez baita nahikoa salaketa hutsa adieraztea. Gainera, beste elastiko batzuez jokatzeko badute, ez dago aktarik edo informazio egiaztaturik... ezin da gauza askorik egin.

Pako Urrestarazuk esan du berek ez dutela isunik ez bestelako zigor motarik eskatzen, baina baimendu gabeko jardueretan parte hartzaile gisa agertzen diren klubei zuzendutako gutun bat gauza egingarria dela iruditzen zaie.

Xabier Ezeizak esku hartu du, gogoratuz duela hainbat urte bera Kontseilu honen kide izan zela eta, orduan, arazoak Donostian zeudela batik bat. Orain ikusten du arazoak probintziako beste inguruetara ere zabaldu direla. Ongi iruditzen zaio herritarren partaidetzarako prozesua, isunena... baina arazoak hedatu egin direla da egia.

Asier Sarriegik adierazi du federazio jakinen batetik borroka bat ari direla planteatzen, galdutako eskumenen berreskuratze gisa. Eta berak nahi duena da herritarren partaidetzarako prozesuaren bidez akordio bat lortu ahal izatea guraso, klub, ikastetxe, federazio eta eskola kirolean sartutako beste agenteen artean.

- Alicia Figuerok gogoeta ozen bat egin du. Esan du Gipuzkoa dela eskola kirolean ondoen aritu daitekeen lurralde historikoa. Uste du arlo horretako jarduera ildoak ezarrita daudela, baina ez direla ezagutzen. Eskualdeko kontseilu, kirol mahai eta abarren sare handia daukagu... baina ez dute benetan ondo ezagutzen Gipuzkoako eskola kirolaren programa.

Adierazi du sarritan urratu egiten direla haurren eskubideak, eta hori kontrolatu ahal izango litzatekeela agente guztien artean adostutako kode etiko baten bidez. Horri buruzko datu bat eman du: Real Sociedad Fundaziotik prestakuntza hasi dira, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, balioetan hezteaz azpimarratuz horretan. Futbol taldeetako teknikarien artean galdetegi bat banatu dute, eta ikusi dute ikastetxeetako klubetakoekin baino prestakuntza hobea dutela.

Esan du ongi iruditzen zaiola partaidetza prozesua martxan jartzea, eta desgaitasunei dagokienez egitekoa asko dela adierazi du.

3) 2015eko urterako aurrekontua

Aitor Arozenak azaldu egin du eskola kirolera bideratutako aurrekontuko partidek azken lau urtean izan duten bilakaera, dokumentu banatuan jasoa; eta 2015eko urte honetarako aurrekontu luzapenaren egoera aipatu du.

Eskola kiroleko jarduerak bertan behera eguraldi txarragatik

Imanol Fernández de Larrinoak planteatu du ezen, eguraldi txarraren eraginez bi jardunaldi bertan behera utzi behar izan dituztenez, toki edota eskualde mailako txapelketetan egunak bilatu beharko direla jardunaldi horiek errekonstruzeko. Lehiaketa puntu batzuetan, baina, eskola kiroleko toki egiturek erabaki dute jardunaldi horiek ez errekonstruztea.

Arkaitz Angiozarrek eskatu du Aldundiak eskola kiroleko jardunaldiak bertan behera uztea erabakitzen duenean, behar beste astiz egitea, hain zuzen horretan inplikaturako agente eta pertsona guztiei jakinarazi ahal izatearren.



Asier Sarriegik eta Aitor Arozenak aipatu dute lehen aldiz gertatu zenean berandu jakinarazi zutela, baina bigarren aldiz gertatu zenean behar beste astiz erabaki eta jakinarazi zutela.

5.- Eskola kiroleko monitore ikastaroa

Imanol Fernández de Larrinoak azaldu du ikasturte honetako bi txandetan guztira 506 pertsonak eman dutela izena monitore ikastaro horiek egiteko; horietatik 147 Gipuzkoakoak ziren.

6.- Euskadiko kiroleko lanbideetara sartzeko eta horietan aritzeko legeari buruzko aurreproiektua

Imanol Fernández de Larrinoak labur azaldu du aurreproiektuaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztutako alegazioen edukia. Adierazi du horien bien edukia egun bat edo bi barru bidaliko zaiela Kontseilua osatzen duten pertsona guztiei.

7.- Eskola Kiroleko Lurralde Kontseiluko hainbat kide aldatzeko hauteskundeak

Imanol Fernández de Larrinoak aipatu du Kontseiluko hainbat kide aldatzeko hauteskunde prozesua eten egin zela, barruti eta estamentu batzuetarako hautagaitzarik ez zelako jaso. Ahalik eta lasterren beste prozesu bat abian jarriko dela eman du aditzera.

8.- Bestelakoak

Arkaitz Angiozarrek gogoratu du Gipuzkoako Foru Aldundiak baimendutako kirol kolektibo nagusien eskolen osagarritasunaren gaia aztertu zela azken bileretan, araudi aldaketa posible batekin batera. Gaia zertan den galdetu du.

Imanol Fernández de Larrinoak erantzun du ezen, aita batek egindako erreklamazio bat zela eta, ebazpen bat eman zela, osagarritasun kontzeptuaren irismena eta horrek euskarri duen araudia azalduz bertan; eta uste du horrenbestez ez dela arau aldaketarik behar. Adierazi du txosten horren edukia, pertsona jakinei buruzko aipamenak kendu ostean, egun bat edo bi barru bidaliko zaiela Kontseilua osatzen duten pertsona guztiei.

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez, hasieran adierazitako eguneko 20:00etan amaitu da bilera.

Presidentea

Idazkaria